

- **Zer berri:** Hitano ikastaroko izen ematea 23an zabalduko da
- **Entzutekuak:** Suzko ikuskizuna jaietan En la Lona konpainiarekin

soraluzeko
hamabostekaria **269.** alea
2012ko uztailearen 20an

pil-pilean



Alarma gorria
piztu dute merkatariek

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (hauren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

Santa Ana Jaixak 2012

Uztailak 25

20:00TAN TXUPINAZUA
20:30TAN TXOSNA IREKIERA ETA BRINDISA

Uztailak 26 HERRIRA EGUNA

12:00TATIK HERRIRAKO MATERIALA SALGAI
14:30TAN BAZKARIXA

Bazkalostian
ARGAZKI HERRIKOIA

Uztailak 27

MUGITUGHERRIXA KONTZERTUA

Uztailak 28

20:00TAN ALTXA, BUSTI ETA TIRA, DANAK HERRIRA
txipli txapla ekimena errekan, zatoz parte hartzera!

Zatoz!

www.soraluzekoherrira.blogspot.com

EUSKAL PRESO TA IHESLARIXEN ESKUBIDIEN ALDE

Plaza Zaharrian HERRIRA GUNIA

Jatorgiruan nahi beste jan eta edateko aukera aparta





OSKAR ELIZBURU



IÑAKI AMUATEGI

ERABILTZEN EZ DANA UHARTU EGITTEN DOK!

Epa, Txisto.

Jaixak gaiñian jitturauz eta herrira juateko irrikaz najaok. Ez jakixat betiko jaixen modukuak izango diran, izan be, ze jai xeble dituk hauek? Santiago lan eguna, krisixa poltxikue-tan... Santana jaixetan ondo pasatzeko aukeria egongo dok, dana dala; eta junturak eta burmuiña uhartu ez daittezen, gogor heldu egin biharko!

Uhartu edo erdoildu hitza erabili juat behin Arrasateko jaixetan etara genduan pegatiña etorri jatalako gogora, "Ebaltzen ez dana erdoildu egitten da". Mezu bikoitzakin, sexuari eta euskeriari lotzeko aukeriakin.

Euskeriakin gertatzen diharduena aittatzia zuan aurreko guztixan helburua. Klusterrak argitaratu dittuan azken datuak ez dituk izan, ez, nere gustukuak: Erabilleran oin dala 10 urte moduan gaozik! Euskal Herrixan, batez beste %13ak erabiltzen ei juagu euskeria; eta txarrena, topia ei dok gaiñera! Gure herrialdian erabiltzen juagu gehixen, hirutik batek edo. Ezagutzia hainbeste igo dala saltzen dabizen garaiotan, eskoletatik pasatzen diranak "euskaldun" ofizial eta dekretuz izendatu dittuzten momentuan... ze arraio gertatzen dok orduan? Zer dala eta topia?

Hizkuntza erabiltzia ezinbestekua dok; % 35ak ez bajok erabiltzen egoera larrian jaok hizkuntzaren etorkizuna bera, eta horren bueltan gabiltzak Gipuzkoan (bestietan oso azpitik). Bajakixat hainbat arrazoi daguala egoeria horrelakua izateko eta hik azaltzia nahiko neukek, izan be, horrek guztixak kontuan izanda, hainbestek zela eusten dotsagun sinistia be zaila egitten dok! Eta, bestalde, zer jaukak ba euskeriak, erabiltzen dogunok horrenbeste lotzeko?

Goguan hartzeko

"Ezin dugu gehiago onartu euskalduntzen ez duten irakats ereduak izatea".

Iñaki Lasa, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua

Eup Oskar!

Euskerian egoerian arrazoiak 1550 karakteretan emotia... orraitio, ez dostak lan makala ipini Oskar! Euskerian galeria eta edozein hizkuntzana, hizkuntz komunitatia puskatzen danian gertatzen dok. Eta gure historian, hainbatetan gertatu dok

hori. Oso urriñera juan barik, 500 urte dira Castillako tropek Nabarra konkistatu zebela, botere eta buruzagitza gunitan erdaldunak izan dituk nagusi harrezkerotik, euskeriak ez dau hainbat mendeetan kultur garapen osorik ezagutu, belaunaldi asko eta askon eskolako hizkuntza, latina, frantsesa eta gaztelania izan dituk. XX. mendian, jasandako debeku eta jazarpenari gaur egun, gure herrixan agintian daguazten politikuen erdalzaletasun eta euskararekiko utzikeria gehitzen badotsaguz, hortxe topatu zeinkez erantzun batzuk.

Horregaittik, aurreneko pausua, erderiak dakan nagusitasun eta sortzen doskun menpekotasuna gaunditzen hastia dok eta horretarako amets egin bihar juagu. Desio eta nahi hori barru barruraino guria egin eta Txan maguan magia erabilitta, hik aittatutako topia aldatu eta Utopia bihurtu geinke. Bajakixat, hizkuntz politika, plangintza eta neurri zehatz eta eraginkorrek bihar ditugula, baina gaian muina geu gaittuk, euskaldunok eta euskaraz bizi nahi dogunok. Euskal komunitatia eratu eta hizkuntz politiken bidez laguntzen bajakok, utopian bidiak urratzen hasteko moduan izango gaittuk. Sarrrik esandako moduan, euskeria dok gure territoriox libre bakarra.

Ondo pasatu jaixetan eta badakik, dabilen harrixari (hizkuntzari) ez jakola odolgirik egitten!

"Euskal Herrixan, %13ak erabiltzen ei juagu euskeria; topia ei dok gaiñera!"

Oskar Elizburu

"Magia erabilitta, hik aittatutako topia aldatu eta Utopia bihurtu geinke"

Iñaki Amuategi



GUTUNAK

Uholdeen ondoren, orain zer?

2011ko azaroan izandako euri jasek kalte ugari sortu zituzten Soralezeko landa auzoetan. Nabarmenena Irure auzoan gertatu zen lur jauzia, bertan izan baitziren kalte handienak. Kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundia egin da konponketen kargu, lanak aurrera dijoaz. Baina zoritxarrez, Irure auzoan ez ezik beste landa guneetan ere kalteak izan dira, Ezozki auzoan, San Andresen eta Txurruka auzoan. Udalak kalteen kostuen balorazioa egin zuen, orotara 122.862 eurotan kalkulatu zituen egin beharreko konponketak. Kalteen txostena Foru Al-

dundira igorri zen dirulaguntza eske, kalteei aurre egiteko Aldundiak 6/2012ko Foru dekretua onartu baitzuen. Maiatzean izan dugu Foru Aldundiaren erabakiaren berri, konkretuki 21.203,30 euroko dirulaguntza ematen digu. Gure taldeak ondorengo galdera luzatzen dio udal gobernari, nork ordaindu behar ditu beste 101.658,7 euroak? Udalak ez dauka dirurik inbertsio hauei aurre egiteko. Egoera ekonomiko latz honen aurrean zer irtenbide planteatzen du BILDÜren Udal Gobernuak? Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten gutzietan aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitze gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, “herriko jubilatutako batzuk” edo “auzokide batzuk” edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **bel-tzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Jokin Oregi
"Bitlandetik"

Josune eta Xabier mutu geratu dira logopedak semeak dislexia duela esan dienean. Etxerako bidea ere isil-isilik egin dute, biek dakite ordea, besteak zer darabilen buruan. Zenbat errieta semeari ez zuelako nahikoa irakurtzen; zenbat errieta nota eskasengatik; zenbat errieta idazterakoan erakusten zuen baldarkeriagatik. Etxeratu direnean, semea telebista itzali eta korrika joan da liburua eskutan hartzera, gurasoei irakurtzen ari zela erakusteko. Andoni Egañak idatzitako liburua da, Basarri bertsolariaren bizitza ardatz. Semea isilean irakurtzen ari da begiak liburuan iltzaturik.

*Neer begak apregi ori
sami nai detu umean
soñez...*

Amak liburua eskuetatik hartu eta ahoz gora irakurri dio:

*Nere begiak arpegi ori
sari nai dute aurean,
soñez urruti banago ere
gogoz or nauzu urrean.
Mundu onetan bearko degu
nork daki zenbat urtetan...
Nik zu gogoan izango zaitut
Arnasa dedan artean.*

Amak irakurtzeari utzi diot, nean, semeari begiratu dio, eta irrifartsu dagoela ohartu da. Zer duzu maitea?, galdetu dio aitak. Semeak asko gustatu zaio, la aitortu du. Gurasoek isilean egin dute negar.

((ENTZUTEKUAK))

Nerea Ariznabarreta, Exodo kale antzerkiko aktorea

Galtzagorriek antolatuta, En la Lona antzerki konpainiak Exodo kale antzerki ibiltaria eskainiko du herriko jaietan. Eszenografia ikusgarria, akrobazia bereziak eta dantza afrikarrak uztartuz, uztailaren 26ko gauean zibilizazio berri baten hastapenera egingo dugu salto. Ezezagunari beldurra kentzeko gonbitea luzatu digu Nerea Ariznabarretak eibartarrak.

Zertan datza Exodo ikusizuna?

Errobera formako estruktura haundixak garraiatzen daben hiru emakume Plaza Zaharrean helduko dira. Nekiak jota, amaierarik bareko bidai batek datoz baina lur emankorran bila aritziak aurrera egitteko indarra emon dotse. Zeuenera helduko dira, ura eta jatekua badaukela ikusi eta Zubi Nagusixan oraina badaguala ospatuko dabe, sua erabilitta.

Nundik dator ideia?

Antzezlanaren En la Lona konpainiako zuzendari diran Paula Alfieri eta Andres Fresno argentinarrak sortu zeben. Ideia zehazki Paulana da eta Argentinako krisixa izan dau inspirazio iturri. Krisixa hasi zanian Argentinako jendiak lehengaiak zaborretatik batzen zittuan eta batzuk ezinbestiak bultzatuta erbestera jo zeben. Exodo desplazatuei eskeinitako omenaldixa da.

Aktoresak jatorri ezberdinetak izatiak esanahi berezixak dauka?

Erbestertzia herrialde dantetan emoten dala bisualki adie-



Suzko errobera erraldoiekin egingo dute antzezlanaren.

razteko modua bada kultura ezberdinetan hazitako aktoreak batzia. Argentinaren baten, eibartaren baten eta afrikaren baten trebetasunak nahasten dira Exodon.

Prestaketa lanetan zer egin jatzue zailena?

Suak bildurra emoten dau baina entseatzeko eta istripuak izaten ondo pasatzen ikasi dogu. Bi metro eta erdi neurtzen dituduen errobera erraldoiekin egiten dogu lan eta akrobaziak egiten ikastia abentura galanta izan da!

Pragan eta Belgikan be izan zarie!

Hizkuntzarik bareko antzezlanaren dantzen beste estatu batzutan antzezteko aukeria emon dosku. Kale antzerki jaialdixetan aritxu gara.

Zer espero dozue herriko publikuaz?

Ezezaguna danari mesfidati begiratzen dotsagu. Elkar ezagutzeko bidaia ibiltarixa egittia proposatzen dogu eta seguru babestuta sentittuko garala! Izugarri gozatzeko gonbitia egin nahi dotset!

"Exodo desplazatuei eskeinitako omenaldixa da"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

H.NOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Hitano ikastaroa antolatu dute udazkenerako

Hika berba egiten ikasteko eta praktikatzeko ikastaroa antolatu dute Pil-pilean Euskara Elkar- teak eta AEK Euskaltegiak, Udala- ren laguntzarekin. Izena emateko epea uztailearen 23an irekiko da, eta Euskaltegian (943 75 14 34) zein Pil-pilean (943 75 13 04 edo euskara@pilpilean.com) egin daiteke.



Teoriko-praktikoa

Ikastaro honetan hiketaren oinarri teorikoak zein praktikoak landuko dira, 20 lagun inguruko taldea hartuta. 2 orduko bost saio izango dira, urriaren 2. astetik hasita, Euskaltegian. Guztira 10 ordu. Martitzenetarako ipini dute zita, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara bitartean. Irakasle lanetan, Jon Basauri arituko da. Matrikula 10 eurokoa da.

Lagun taldeei deia

Ikastaroan interesa duen edonork parte har dezake. Hala ere, dei berezia egin nahi zaie lagun-talde edo kuadrillei binaka, hiru- eta lau- launaka parte har dezaten ikastaroan. Izan ere, hika jarduteko, zela egin jakiteaz gain, ohitura hartzea da giltza eta horretan hasieratik hasteko ikastaroan bertan ekitea interesgarria litzateke, antolatzaileen ustez.

Bizikaleren otarra Mireia Leterentzat

Herrian erosketak egin dituztenen artean 80.000 errifa banatu dituzte Bizikale merkatarien elkarteko dendariak. Aurreko egunean Zubi Nagusian egin zuten zozketa eta Mireia Leteri egokitu zaio herriko dendetako produktuez betetako otarra. Letek pozik jaso du, eta bere esker ona adierazi die merkatariei. Herriko merkataritza biziberri- ztea du helburu aipatutako ekimenak.



Debara joateko autobus zerbitzua

Soraluze eta Deba lotuko dituen autobusa uztailearen 23an ipiniko da martxan, irailaren 3ra arte. Debara joateko, Mendaro-Eibar ibilbidea egiten duen autobusa hartu beharko dute eta Eibarren, autobus berean egingo dute Debarako bidea. Soraluzera itzultzeko berriz, Eibarrera arte joan beharko dira eta autobus berean Soraluzera egingo dute.

Ordutegia:

Joateko

Soraluze 12:25 - 16:25 - 19:25

Itzultzeko

Deba 14:25 - 17:25 - 20:25

Senegalgo eskolak berritzen laguntzeko aukera

Bergaran sortu den senegaldarren "Ndank Ndank" ("poliki-poliki", senegaldarrez) elkarteko kideak herrian izango dira bihar. Arratsaldeko 17.00ak eta 19.00ak bitartean kamisetak eta poltsak salduko dituzte Plaza Barrixan eta musikari ere tartea eskainiz tinbalak joko dituzte. Batutako dirua Senegalgo eskolak berritzeko erabiliko dute.

Langabezia salatzen martxa

LAB sindikatuko ordezkari eta afiliatuek Deba eskualdeko enplegu egoera salatzen bizikleta martxa egin zuten. Gurera eguerdian iritsi ziren Bergaratik eta talde argazkia atera ostean, eskualdeko altuena izanik herriko langabezi tasa ekarri zuten gogora. Gaztetxean bazkaldu eta Eibarren burutu zen manifestazioan parte hartu zuten gero.



Kirol bete jai San Andresen

Santiago EH Bildu gobernu taldeko kide

Euskal Herria Bildu koalizioak EAEko hauteskondeak irabaztekoan izango lukeen gobernu taldea aurkeztu du. Taldea osatzen duten hautagaien artean dago herriko Bilduko zinegotzi den Mikel Santiago. EH Bilduk hauteskondeak irabaziko balitu edo Jaurlaritzara iritsiko balitz, Santiago Justizia Sozialeko sailburu izango litzateke.



Mandoen erabilpena baimenduko du udalak

Mugikortasun urritasuna duten sorazuztarrentzat, larrialdi kasuetarako edo zamalanak egiteko, oinezko bidean dauden etxebizitzek portaleko mando bana jaso ahaliko dute. Beronen kostua bizilagunek ordaindu beharko dute eta erabilera desegokia egiten bada, udalak mandoa kentzeko baimena izango du.

Baloi gogorak debekatuta

Plaza Zaharrean baloiekin jolasteak hainbat herritarrengan sortu duen egonezina dela eta, udalak baloi gogorrekin jokatzeko debekua ezarri du. Debekua betearazteko udaltzainek zainduko dute gunea baina gurasoei ere eskatzen diete beraien seme-alabei araua azaltzeko.

Odol ateratzeak Itxaropenan

Gaur, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean odol ateratze saioak egingo dituzte Itxaropena Jubilatuen Etxean. Arduradunek bereziki herriko gazteak animatu nahi dituzte.

Emakumeen Pala txapelketa, herri kirol desafioa, paleta egokituko erakustaldia, bola txapelketak, Iñaki Ruizen omenezko I. mendi lasterketa, motozerra apustua... kirol jarduera ugari

izan dira San Andresko jaietan. Baita bazkariak, bertsolariak eta erromeriak ere auzotarren gozamenarako. Parte hartze handiak eta giro ezin hobekak festak boro-bildu ditu.



Iturria: Fernan Oregi, Aitziber Mayo eta Pil-pilean

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTZIATARREI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Salmentak jeitsi dira eta egoera oso larria da



Salmentak %30 inguru jeitsi dira azkenengo bi urtean herrian eta Espainiako Gobernuaren azkenengo lege erreformak egoera are eta gehiago okertuko duela uste dute. Merkatariek dei egin diote udalari eta herritarrei sektorearen egoeraz konturatu daitezen.

Herriko merkatariek batzen dituen Bizi-kale Elkartek alarma gorria piztu du. Azken bi urteotan salmentetan izandako jeitsiera gogorraren eraginez (%30 bataz beste) herriko denda txiki askoren bideragarritasuna kolokan dagoela ohartarazi dute. Krisi ekonomikoaren eraginak zeresan handia izan dezakeela onartu arren euren ustez badira egoera okerrera eraman duten bestelako faktoreak; inguruko herrietan merkatalgune handiak ugaltzea, herritar askok erosketak merkatalgune handiotan egiteko hartu duten joera, herriaren erdigunera autoz inguratzeko dauden zailtasunak besteak beste.

Aipatutakoa gutxi balitz, Espainiako Gobernuak joan den astean onartutako BEZaren igoerak eta lege dekretuak are gehiago okertuko du merkataritxikien egoera. Ordutegien eta beherapenen liberalizazioa, astean zehar zabaldu ahal izateko 18 ordu gehiago izatea, 16 jaiegunetan zabalteko baimena...

Eskaria udalari eta herritarrei

Merkatariek udalarekin bildu dira azkenengo egunetan eta herriaren erdigunerako sarbidea errazteko neurriak

Herriko denda txiki askoren bideragarritasuna kolokan dago

har ditzala eskatu diote. Batez ere Erregetzeko aparkalekuetan denbora mugatuz aparkatzeko sistema ezartzea eta udaletxeko aldapa arratsalde ere zabalteko aukera aztertzea izan dira eskaera nagusiak. Horrekin batera, irailtik aurrera herritarren kontzientziazioa lantzeko helburua izango duen azterketa zehatza eta kanpaina indartsu bat egitea adosteko berba egiten dihardute. Hain zuzen, herritarrei herrian erosi dezaten dei egin nahi diete merkatariek, herriko zerbitzuak zabalik eta lanpostuak indarrean mantentzeko bide bakarra hori dela uste dutelako.

Bestalde, azken asteotan herrian bolo-bolo dabilen gaia dela eta, Bizikalek argi laga nahi du ez duela inolako kontrakotasunik ez eguenetako merkatuarekiko, ez zapatuetako baseritarren azokarekiko, ez eta kontsumo taldearekiko ere, elkarteak, herriko eskaintza aberastu eta herrian bertan kontsumitzea bultzatzen duten ekimenen alde dago. Gainera arazoren bat izatekotan dagokion lekuan eta dagokionarekin konponduko dutela adierazi dute.

Datuak

Merkatalgune handiz inguratuta

Debarrenean bakarrik 20tik gora merkatalgune daude (Eroski, Dia, Neto, Lidl, El Corte Ingles, Forum...). Eibarren eta Arrasaten esaterako 7tik gora daude. Merkatalguneok eskaintzen duten erosotasuna azpimarratzen bada ere, batzbeste, joan-etorrian 20-30 minutu egiten dira eta gutxienez 3 euroko gastua gasolinatan edo garraio publikoan.

Herrian DÍA supermerkatuko ordezkariak ibili dira, hainbat lokaletan negozio eskaintza egiten. Honen aurrean,

merkatarien elkarteak bere kezka adierazi du: *“Argi dago herri merkataritzandako kalte gehigarria ekarriko leukela, berez kaltetuta dagan ekonomixari”*.

Prezioak ez dira beti garestiagoak

Herriko hainbat produkturen prezioak Eroskikoekin alderatuta, argi ikusten da herriko prezioak ez direla beti merkatalgune handietakoak baino garestiagoak:

	Txerri pantzeta (1 kg)	Indioilar bularkia (100 gr)	Koipe Oliba Olioia	Txanpinoi bandeja	Orlando tomate brik-a	Eskolarako klasifikatzailea
Soraluze	5'20 €	1,00 €	2'29 €	0'99 €	0'79€	6'45 €
Eibar (Eroski)	5'85 €	0'92 €	2'85 €	1'09 €	0'59€	4'89 €

Denda kopuru txikia eta Eibarrerako joera

Eskualdeko merkataritzaren dinamizaziorako bulegoan mila biztanleko dagoen denda kopurua neurtzen dute. Debarrenean denda kopuru handiena Eibarrek du 444 dendarekin. Bigarrena Ermua da (255 denda), hirugarrena

Elgoibar (177), laugarrena Mutriku (72), bosgarrena Deba (83) eta seigarrena Soraluze 43 dendarekin. Mendaro eta Mailabia atzerago datoz. Leire Ojanguren, merkataritzaren bulegoko arduradunak azpimarratu du soraluzetarrek joera handia dutela erosketak Eibarren egiteko.



Amparo Autozerbitzua: *"Arratsaldez asko igarri dogu jaitsieria"*

Gabolats kaleko Autoservicio Amparoko dendariak 24 urte daramatzate negozioarekin. Salmenten jaitsiera zerk eragin zezakeen galdetuta, gazteen ohiturak ipini ditu ezbaian: *“Eurak dira kanpuan gehixen erosten dabenak, erosua da euren dako”*, baina erdialdea peatonalizatzeak ere kalte egin diela irizten dio: *“Herrittarrerri ondo etortzen jakue erdialdia zabalik egotia erosketak autuan sartzeko. Guk arratsaldez asko igartzen dogu jaitsieria”*.



Bezeroa: *"Herrixan erostetik gehixen baloratzen dotena dendarixakin tratua da"*

Gabolatseko autozerbitzuan ohiko bezeroa da Marijo. Sartu eta berehala hasi dira solasean dendaria eta bezeroa. Marijok azaldu du freskoak, herrian erosten dituela eta genero oso ona aurkitu daitekeela. Onena, eguneroko harremana: *“Herrixan erostetik gehixen baloratzen dotena dendarixakin tratua da. Diruzorrua ahaztu ezkerro, bixar ordaindu ahal izateko konfiantzia eukitzia paregabia da”*.

Bizikale Elkarteak: Zein mezu helarazi nahi dotsazue herrixari?

Herrixan erosten dabenari, eskerrak. Berdin da zer edo nun erosten daben. Erosketa bakoitzakin herrixan zerbitzuak eta lanpostuak izatia ahalbidetzen dau. Hala eta be, guk ezin dotsagu inori exigitu herrixan erosteko, gure zeregina da produktu eta prezio egokiak eskainita erakartzea. Kontua da aparteko oztokuak dittugula eta horrek gainditzeko udalan laguntza bihar dogula.

“Herrixan erostia zerbitzueri eta lanpostueri eustia da”

Erdialdia ixtian eragina horrebestekua da?

Bai. Poliki-poliki gertatzen da. Jendia autua hartu eta kanpora juaten hasten da. Hasieran noizbehinka eta azkenerako ixa dana kanpuan erosten amaitzen dau. Ixa konturatu barik. Dana autuakin egiten dogu eta herrixan ezin badogu, kanpora eta kitto! Biharbada ez da egokixena baina hala da.

Etorkizunian zein bide jarraituko dozue?

Herrittarrak eta udalak kotzientzia hartzian dago gure itxaropena. Gure bizimodua herrixari zerbitzua emonaz jarraitu nahi dogu eta horretarako, merkatarixok batuta egin bihar dogu lan, herrittarrekin eta udalakin batera.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Bizikalek herritarrei dei egin die herrian erosteko ohitura har dezaten. Salmentak urtean-urtean behera doaz eta azken datuak alarma piztu du: %40ko jaitsiera izan da salmentetan.


Konturatzen zara merkatalgune haundixetan erostiak herrixan daukan eraginaz?

FRANCISCO APARICIO



Ni Eibarrera juaten naiz erosketak modu eroso baten egitten ditutuelako eta han danetik dagualako. Herrixan ogixa eta frutia bakarrik. Badakit honek danak ze suposatzen dabean, lehen komertzio gehixago zeren eta danetik gehixago.

ION VARELA



Gauzagitxi dareherrixan eta erosketa haundixa egin bihar badot Eibarrera juaten naiz. Baina bestela nahiko kontsumitzen dot herrixan, lagun arteko bazkariaren bat badaukagu hemen erosten dogu. Ez dakit zerk aldaraziko lostaken erosteko ohituria.

ALAZNE ARIZAGA



Egunerokua herrixan erosten dot, frutia, arraina, ogixa... erosketa haundixa egin bihar badot kanpuan, erosotasunagaittik, prezixuagaittik... Egixa da herriko denda asko itxi dirala dagueaneko eta euren lekuan ez dakit ze egingo neuken. Dana dala, ez da momentu onena gastatzeko.

ANA MARI ARISTI



Nik uste asko, lan egin, Nautua hartu merkatalgune haundixetara juaten dala. Herrixan genero oso ona saltzen da eta herritarrek herrixan etorkizunian gehixago pentsatu biharko leukie. Santa Anan eta Kalebarrenen bakarrik komertzio mordua jua dira ixten.

Eman zure iritzia sarean



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** "200 errezeta goxo eta osasuntsu" errezeta liburua.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Oier Gonzalez

► **Jose Luis de Leon,** Edurtza tabernako jabis da aurreko aleko argazki-an agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

Abesbatzaren kontzertua bihar

Ezoziko Ama abesbatzak hamahiru abestiz osatutako kantaldia eskainiko du bihar arratsaldeko 20:00etan Zinean. Emanaldiaren lehenengo zatian "Maria la portuguesa", "Cantares" edo "Sicut Cervus" moduko kantak eskainiko dituzte. Euskal kantak nagusituko dira gero, "Loriak udan", "Erribera" edo "Segalariak" esaterako. Irailean ekingo diete berriro kontzertu-erri eta Portugalera joango direla ere aurreratu dute.



Irureko jaietan meza eta luntxa

Abuztuaren 5ean ospatuko dute Irure auzoko egunaren ospakizuna. Eguerdiko 12:30ean meza ospatuko da eta jarraian luntx bereziaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Herriko musikariek girotuko dute bazkalarteko tartea.

Andramarixak sasoi betean

Abuztuaren 15etik 17ra bitartean ospakizunetz beteko da herria. Erandio-ko musika bandak emango die hasiera ekitaldiei eta herri-kirol erakustaldiak Plaza Zaharra beteko du. Dantzaldia eta mantekau dastatzeak girotuko dute eguazten gaua. Biharamunean San Roke Baselizara igoko dira eta tortila lehiaketak saltsa jarriko du gero. Puzgarriak ez dira faltako, ezta Duo Plaentxiren emanaldia ere. Larreategi taldearen kalejirak lotienak esnatuko ditu 17 goizean eta ostean, zezena izango dute trebetasunak neurtzeko.

Oregi eta de Cos Eibarko Argazki Rallyan sarituak

Fernando Oregik eta Carlos de Cosek bina sari eskuratu dituzte Eibarko Klub Deportiboak antolatutako argazki rallyan. Euskal Jaia abiapuntu hartuta, argazkilariek bi modalitatetan eman zuten izena eta bietan sari bana eraman dute etxera. Koloretan digitalean, De Cos bigarren izendatu zuten epaimaikideek eta Oregi hirugarren. Txuri-beltezko modalitatean, Oregik lortu zuen bigarren postua eta De Cosek hirugarrena.



Herriko umeez aisialdiaz gozatzeko aukera izan dute uztailean

Udaleku irekietan izena emandako 110 umeez herriko zein Euskal Herriko zenbait txoko eta bazter ezagutu dituzte. Euskara ahoan eta motxila ilusioz beteta, ezin hobeto aritu dira Kukumixoko begiraleek mimo handiz prestatutako jardueretan. Hendaiara itsasontziz heldu dira, Bergarako igerilekuan eta Aulestiko putzuan bainu ederrak hartu dituzte eta naturaren eguna ospatu dute esaterako. Etnia ezberdinen jatorriaz ere mintzatu dira.

Kosta ala kosta Mendizabalera

Otazan hasi eta astebetean Zarautzeraino heldu dira Kosta ala kosta udaleku ibiltarietako lagunak. Gurera Elosutik heldu ziren oinez eta Mendizabalen hartu zuten ostatu. Bertan trikuharrien

gaineko azalpenak jaso zituzten, txalapartan trebatu ziren eta afari goxoaren bueltan gaubela ederra antolatu zuten. Oriotik pasatu ostean, Zarautzen ur ekintzak eginez bukatu dute ibilaldia.



Disceinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak



Berrehun lagun Iñaki Ruiz

I. mendi lasterketan



Iñaki Arribillaga lehenengo herritarra izan zen.

1 91 korrikalarik bukatu zuten Iñaki Ruizen omenezko I. mendiko lasterketa. Mendigainean 21 kilometro korritu ostean San Andre-sera heltzen lehena Oier Ariznabarreta durangarra izan zen, 1:35:26-ko denbora eginda. Emakumeetan azkarrena Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen, 1:56:24ko denboran helmugaratuta. Soraluze-tarrei dagokienez, hogeita hiruk eman zuten izena, denak gizonetakoak eta helmugara heltzen lehena Iñaki Arribillaga gaztea izan zen, 1:52:01ko denbora eginda. Haren atzetik Javier Gonzalez eta Dabid Rascon iritsi ziren.

Lorea de Castro eta Ainara Muga palan txapeldun



Uztailaren 7an jokatu zen Emakumeen Torturaren Aurkako VII. Pala Txapelketako finala. Lehia biziaren ondotik Nere Aranberri eta Onintza Narbaiza 4. sailkatu ziren, 3. Alana Berraondo eta Irati Iñurrieta (Idoia Belarren orde), 2. Amaia Ariznabarreta eta Daiana Rico eta aurtengo txapelketako irabazleak Lorea de Castro eta Ainara Muga izan dira.

Atxotegi txapeldun frontenis txapelketan

Aitor Atxotegik hirugarrenez jantzi du txapela banakako frontenis txapelketan. Aurreko asteburuan jokatu zen txapelketa goiko frontoian eta finalean

Ion Varela izan zuen arerio. Lehia handiko partidua jokatu ostean, azken neurketa 25-20ko emaitzaz bukatu zen, garaipena Aitorren alde.

Ezozikoak nagusi herri kiroletan

Ikusmira handia sortu zuen Ezoziko eta San Andres auzoen arteko herri kirol desafioak. Giro politarekin eta animoz jantzita ekin zioten bi auzoetako gazteek

lokotx bilketan, trontzan, sokatiran, zakua eramaten eta ingudean aritzeari. Bigarren itzuli honetan ere lau eta biko emaitzaz, Ezozikoak nagusitu ziren.

EMAITZAK

PELOTA

Arretxe II – Beroiz	10
Idoate – Laskurain	18
Olaizola II – Beroiz	22
Gonzalez – Laskurain	10

FUTBITO TXAPELKETA

Eusko Label- Artifices	5-8
Malas Hierbas – Costo de Marfil	9-4
Fronton Team – Super Torpedos	8-5
Kastakuak – Karril Ori	3-3
Artifices – Karril Ori	8-4
Fronton Team – Malas Hierbas	13-1

AGENDA

PELOTA

Eguaztena 25, 17:00etan Ermuan
Titin III – Merino II
Xala – Laskurain

Eguena 26, 18:00etan Ordizian
Titin III – Laskurain
Mtz de Irujo – Zabaleta

FUTBITO TXAPELKETA

Zapatua 21, 19:00etan Ezozin FINALA

Artifices – Fronton Team

OHARRAK

Pilota kluba sortzeko bilera

Kirol Elkarteak datorren urtean pilota taldea martxan jartzeko bilera egingo du uztailaren 24an, arratsaldeko 20:00etan udaletxeko Saio Aretoan. Bertara gonbidatu nahi dituzte ardurak hartzeko edo laguntzeko prest dauden herritarrak. Datorren denboraldian Elgetako Ozkarbi taldeko pilotariak Soraluzen jokatzeko hasiko dira, nagusi zein jubenil, afizionatu mailan.

ZUZENKETA

Txirrindularitza

Quebrantahuesos frogako berrian Jon Zabala parte hartzaileari errorez dortsal zenbaki eta denbora okerra jarri genizkion. Berak 4.769. zenbakiarekin lehiatu zuen eta 7:25:34ko denboran egin zuen froga (guk 8:44:53ko denbora jarri genion). Barkatu eragozpenak.

ZORION AGURRAK



Maren Agirre Aizpitarte
Abuztuan 14an urtebete!
Zorionak sorgintxo eta koloretako muxuak donon partetik!



Iraitz Plata
Uztailan 13an 4 urte bete ditzuzulako, zorionak eta patxo haundi bat etxekeun partez!



Zorionak Maddi!
Uztailan 16xan 3 urte!
Patxo potolo bat poxpolintxo!
Asko maitte zaittugu!



Laida Sanchez
Uztailan 21ian urtebete!
Zorionak eta muxu pila etxeke danon eta Anderren partez!



Iker Criado eta Gorka Rascon
Uztailan 16xan eta abuztuan 6xan 5 eta 4 urte betetzen ditzuzue!
Zorionak eta muxu haundi bat, bereziki Arianen eta Irean partez!



Paula Arana
Uztailan 23an 12 urte!
Zorionak polittori eta muxu ikaragarrixak etxekeun partez!



Zorionak Manex!
Gaur 12 urte betetzen ditzuzu!
Muxu potolo haundi asko, etxeke danon partez!



Irati, Itziar eta Fernando
Etxeko ttikien, ertain eta helduenari, Zorionak danori eta muxu eta besarkada bero pila etxeke danon partez!



Julen Gabilondo
Abuztuan 12xan 8 urte!
Ander eta Miren Calderon
Abuztuan 24an 7urte!
Zorionak hirukote, familixian partez.

jaiotakoak

UNAX IGARTUA GARCIA ANTON
AIMAR IGARTUA GARCIA ANTON
ADRIAN COBOS GALLARDO
UNAI CALVO GONZALEZ



hildakoak

ANGEL HERNALTES CASTILLA



MARIBEL PRECIADO ARGARATE

2002KO UZTAILAREN 29AN HIL ZEN,
56 URTE ZITUELA

“10 urte zu gabe baina egunero gure bihotzean”

Maite zaitugu

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Soraluze Gogoan
Argazkilaria: Eli Lakuesta

DANBORRADA KO HASTAPENAK

Danbor doinuak festa giruan murgiltzeko asmuakin Allegro Elkarteko bazkidiak sortu zeben herriko danborradia 1964. urtian. Santiago – Santa Ana jaixetako egitaraua indartuz juañ zan eta danborradia Santiago egunian ospatzia erabaki zeben.

Hasiera haretan diru faltiagaittik jantzixak eta gainontzeko materixala Bergaratik hartzen zebela dauke akorduan. Dirua etartzeko danborrada ostian, frontoian, berbenia montatzen hasi ziran eta bost pezeta balixo zittuan sarrera baten truke goizaldera arteko dantza saiua eskaintzen zeben.

Danborradia sendotziakin batera, emakumien parte hartzia haunditzen juañ zan. Hasieran karrozan edo zaldi gainian hartzen zeben parte baina emakumien eskubidiak aldarrikatzen hasi ziran sasoiñ, danborradan be lekua hartu zeben.

Argazkixan

Goixan: Modesto Alberdi “Torrekua” †, “Gabika”, Juanito Ezenarro “Urzelai” †, Felipe Arana “Arraoz” † eta Berbiz Ezenarro †.

Erdixan: Imanol Maiztegi †, Jose Agustin Oregi, Jesus Mari Gomez, Gerardo Ezenarro †.

Bahian: Julio Ezenarro †, Jose Maria Aldazabal “Mayo” †, Jose Mari Igarzabal “Arzabalaga” †, Juanito Urrestarazu †, Imanol Alberdi †.



IÑIGO PLACENCIA

II. URTEURRENA

*“Beti gure bihotzetan egongo zara.
Asko maite zaittugu”*

Zure familia



LURDES ARIZNABARRETA

2011KO UZTAILAREN 23AN HIL ZEN

*“Senide eta gertuko
izango gara lekuko
zure lorea guban bizi da
ez da inoiz ximelduko”*

Etxekoak

SORALUZEKO JAIXAK

galtzagorrixen egitaraua 2012

amalurra defienda dezagun

Jaixak herritik herrixandako!

Eguena 25
gazte eguna

14:30ean Gazte Bazkarixa Zubixan ondoren, Triki-bertsu-jas-poteual gaztetxiakin eskuz esku

18:00etan Marras eta Txarangiak In Ointxura Estaziñotik

19:30etan Jaixetako Txupinazua ta Galtzagorri Txarangia kalez kale

01:00etan erromerixia

Eguena 26
mañanitotik mojitora

07:30ean Mañanitua: musika, edana eta jolasa Zubittik gaztetxiakin batera

14:30ean Herri Bazkarixa Herrinakin

19:30ean Dantzak kalez kale Urnats dantza taldiakin

21:00etatik goizalderarte Mojito freskual

22:00etan Plaza Zaharretik, "EXODO" kale antzerkixa su arteko majan

00:00etan Herri karaokia mojitoz bial

Barixakua 27
mugittu gherrixa

21:00etan **MUGITTU GHERRIXA** jaialdixan hasiera Plaza Zaharreko Txosnetan

Gabian, **MUGITTU GHERRIXA** jarraipena Gaztetxe eta zubixan

Herrira eta gaztetxiakin batera

Jaixetan zaindu, gozatu ta erantzun deigun!

Zapatua 28
azkenengo azeitunia

20:00etan Aitxa, busti ta tira, danak HERRIRA! Zubixan

ostian, "TAMBOLAS" batukadia Bartzelonatik kalkan gorat

00:00etan kontzertuak

ON **anci arebak**

EXODO

JOXPA

PASCUAL CHURRUCA, s.a.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

TXURITXU

Zuekin gozatzen

943 75 24 43

Beheko 11.º Bidea 27 Beheko

MAPFRE

SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabotez, 5-B Behea
20.590 Soralue (Gipuzkoa)
Email: Ibarzaba50@gmail.com
ainhoa.ibarzabal@gmail.com

Tel: 943 75 16 58
Mugikorra: 649 49 79 59
649 75 90 78
Fax: 943 75 16 10

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

HITAND

ikaslaroa

Urriaren 9, 16, 23, 30 eta
azaroaren ban (martitzenero).

18:30etatik 20:30etara
Euskaltegian

Izena emateko epea uztailaren 23an irekiko da,
Euskaltegian zein Pil-pileanen (943 75 13 04
edo euskara@pilpilean.com) egin daiteke.



Sorozoko Udala

Matrikula 10 eurokoa da.